

EUSKAL AEKO INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2010EKO MAIATZA


Euskal AEko industri jarduera %5,3 igo da 2010eko maiatzean

Aurreko hilabetearekin, 2010eko apirilarekin, alderatuta %0,2 igo da Euskal AEko industri produkzioa

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneousari dagokionez, Euskal AEko industri produkzioa %5,3 igo da 2010eko maiatzean, 2009ko maiatzarekin alderatuta. Aurreko hilabetearen, hau da, 2010eko apirilaren aldean Euskal AEko industri produkzioa %0,2 igo da baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

1. grafikoa. Euskal AEko industri produkzioaren urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhileka

% hazkundera



(*) 2010eko apirileko eta maiatzeko urte arteko hazkunde zuzendua
Iturria: Eustat. Euskal AEko industri produkzioaren indizea (IPI)

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusienak sailkatu ostean, 2010eko maiatzeko indizearen bilakaera (2009ko maiatzaren aldean) positiboa izan da guztietan, energiaren sektorean izan ezik honek % 5,2 egin baitu behera. Tarteko ondasunek %12,9 egin dute gora, ekipamenduko ondasunak %0,7 igo dira eta kontsumo-ondasunak, oro har, %1,4; azken hauek, hain zuzen, gora egin dute kontsumo-ondasun ez iraunkorrek ere gora egin dutelako (%7,0). Kontsumo-ondasun iraunkorrek, aldiz, %15,9 egin dute behera.

2010eko maiatzeko hilabete arteko aldakuntza, 2010eko apirilaren aldean, negatiboa izan da industriako sektore handientzat; tarteko ondasunentzat izan ezik, hauek %2,0 egin baitute gora. Ekipamenduko ondasunek %2,2 egin dute behera eta kontsumo-ondasunek %1,1, behera egin dutelako bai kontsumo-ondasun iraunkorrek (-%1,0) bai kontsumo-ondasun ez iraunkorrek (-%1,1).

2010eko maiatzean (aurreko urteko hilabete beraren aldean) hazkunderik handienak izan dituzten sektoreak Kautxua eta plastikoa eta Garraio-materiala izan dira, %31,5 eta %20,3ko tasekin hurrenez hurren.

1. taula. Industri produkzioaren indizean urte batetik bestera hazkunde handienak eta txikienak izan dituzten sektoreak. A-31

Igoera handienak izan dituzten sektoreak		Beherapen handienak izan dituzten sektoreak	
Maiatza10 / Maiatza09	%	Maiatza10 / Maiatza09	%
Kautxua eta plastikoa	31,5	Larruaren eta oinetakoen industria	-39,5
Garraio-materiala	20,3	Bestelako manufaktura-ind.	-13,5
Metalgintza eta metalezko artikulua	12,8	Metalezko eta ez-metalezko meak	-11,5
Elikagai-industria	9,2	Makineria	-11,2

Iturria: Eustat. Euskal AEko industri produkzioaren indizea

Bestalde, urte batetik besterako tasetan beherapenik handienak izan dituzten sektoreak hurrengoak izan dira: larruaren eta oinetakoen industria (-%39,5) eta manufakturatako beste industria batzuk (-%13,5), eta honen barruan altzariak, kirol gaiak eta bestelakoak egitea.

Lurralde historikoka, Industri Produkzioaren Indizearen urte batetik besterako maiatzeko bilakaerak ikur positiboa izan du Araban (%18,5eko igoera); Bizkaian %4,6 egin du gora, baina Gipuzkoan %0,3 egin du behera. Hiletik hilerako hazkunde tasa positiboa izan da Araban eta Bizkaian: %1,6 eta %0,7 igo dira, hurrenez hurren, 2010eko apirilaren aldean. Gipuzkoan %1,1 egin du behera.

2. taula. 2010EKO MAIATZA. Euskal AEko Industri Produkzio Indizearen aldakuntza tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	10Mai/09Mai	At/At-1 (1)	10Mai/10Api	10Api/10Mar
Indize orokorra: Euskal AE	5,3	0,2	0,2	0,2
Araba	18,5	9,8	1,6	-0,5
Bizkaia	4,6	-2,7	0,7	1,8
Gipuzkoa	-0,3	-1,1	-1,1	-1,2
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	1,4	0,9	-1,1	-1,4
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-15,9	-11,8	-1,0	-6,5
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	7,0	4,9	-1,1	0,0
Ekipo-ondasunak	0,7	-3,7	-2,2	1,5
Bitarteko ondasunak	12,9	6,6	2,0	-1,9
Energia	-5,2	-11,1	-0,7	9,6

(1) 2010eko urtariletik maiatzera bitartean eman den urte arteko aldakuntza tasa, 2009ko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal AEko industri produkzioaren indizea

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua